

EBAZPENA, OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONARTZEN DITUENA SOZIEATEAREN SUKALDARITZA ARLOKO GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU MUGAGABE BAT BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN KANPO-DEIALDIRAKO

2024ko martxoaren 22an, Gizarteko Sukaldaritza Arloko Giza Nutrizioko eta Dietetikako goi-mailako teknikari lanpostu bat barne-mailan betetzeko oinarriak argitaratu ziren.

2025eko apirilaren 30ean, Indesa 2010 SLren Gerentziako Zuzendaritzak prozesu hori amaitu zuen, esleitu gabe geratu baitzen, onartutako parte-hartzaile bakarra ezabatu zelako.

Horregatik, lanpostu hori betetzeko kanpoko deialdia egiten da.

Plaza hutsen, eta hala badagokio, sortu berri diren plazen eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, eta Indesa 2010 SL sozietatearen hitzarmenak berak onetsi zituzten lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira. Langile publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publizitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau :

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Sozietatearen sukaldearen arloko Nutrizio eta Dietetikako goi-mailako teknikari lanpostu mugagabe bat kanpo-deialdi bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak eta eranskinak onartzea.

BIGARRENA.- Aipatutako lanpostura sartzeko kanpoko deialdiaren bidezko hautaketa-prozesuaren deialdia onartzea, eta eskabideak eta oinarri orokorretan jasotako agiriak aurkezteko epea ezartzea.

HIRUGARRENA.- Hautaketa prozesuaren hautaketa organo gisa honako hauek izendatzea :

- **Lehendakaria:** Indesa 2010 SL enpresako Giza Baliabide eta Orientazioko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- **Kidea:** Indesa 2010 SL enpresako Operazio zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- **Kidea:** Laguntza Unitateko goi-mailako teknikaria
- **Kidea:** Indesa 2010 SL enpresako Sukaldaritza Arloko burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- **Idazkaria:** Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza Juridikoko teknikaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea batzordeari.

En Vitoria-Gasteiz a 17 de julio de 2025

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea

OINARRI ARAUTZAILEAK, GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GOIMAILAKO TEKNIKARIAREN EKOIZPEN LANPOSTU MUGAGABE BATERAKO KANPOKO DEIALDIA EGITEKO INDESA 2010 SL SOZIJETATEAREN SUKALDARITZA EREMURAKO.

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- ARAU OROKORRAK

1.1.- Oinarri orokor eta oinarri espezifikoko hauen xedea da, hautaketa prozesua arautzeko arauak ezartzea, kanpoko deialdiko araubidean, giza nutrizioko eta dietetikako teknikari lanpostu bat estaltzeko; hori guztia, Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan eta sozietatearen lanpostua deskribatzeko eta baloratzeko memorian ezarritakoaren arabera.

1.2.- Ariketei deialdi honetan oro har ezarritakoa aplikatuko zaie. Hautaketa sistema, txanda, berariazko baldintzak, hautaketa proba, puntuazioak eta gainerako arau partikularrak, oinarri hauek jasotzen den hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoen arabera arautuko dira.

1.3.- Halaber, deialdi honen xedea da, hala badagokio, lan poltsa bat hornitzea deitutako lanposturako (giza nutrizioko eta dietetikako teknikaria), enpresa sor litezkeen aldi baterako beharrak betetzeko.

1.4.- Deitutako plazetarako ezarritako baldintzak ezingo dira inola ere bete nahitaezko probak eta baztertzeko probak gainditu ez dituzten izangaien bidez, deialdiaren oinarri hauen arabera.

1.5.- Deialdiak bi zerrenda baztertzailerik izango ditu:

- A. A zerrenda: % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aintzatetsia duten pertsonentzako deialdi murriztua.
- B. B zerrenda (subsidiarioa): Zerrenda hau erabiliko da A zerrendan baliozko hautagairik ez badago edo batek ere hautaketa prozesua gainditu ez badu. Zerrenda honetan parte hartu ahal izango dute %33tik beherako desgaitasuna duten izangaiak edo desgaitasun aintzatespenik ez dutenak. Zerrenda hau aktibatuz gero, izangaien ezgaitasunaren egiaztagiria balioetsiko da, nahiz eta % 33ra ez iritsi.

1.6.-Ekonomiaren eta efizientziaren izenean, bi zerrendek epe eta denbora beretan egingo dituzte ariketak.

A zerrendako hautagai batek edo gehiagok gainditzen badituzte ariketak, puntuazioaren arabera hautatuko dira.

A zerrendan baliozko hautagairik aurkezten ez bada edo hautaketa prozesua inork gainditzen ez badu, B zerrendatik hautatuko da.

1.7.- Lan poltsa honako lehentasun ordena honen arabera egituratzen da:

Lehenik eta behin, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aintzatetsita duten hautagaietatik hautaketa prozesua gainditu dutenak sartuko dira, lortutako puntuazioaren arabera.

Ondoren, % 33tik beherako desgaitasuna duten edo desgaitasun aintzatespenik ez duten hautagaiak sartuko dira, horiek ere lortutako puntuazio ordenaren arabera.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK.

2.1- Eskatutako titulu akademikoa izateaz gain, titulua izapidetzeko eskubideak ordainduta ere izan beharko ditu.

Hautaprobetan onartzeko eta parte hartzeko, oinarri orokorretan adierazitako baldintzez gain, izangaiek titulu hauek izan edo haiek izapidetzeko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte: Giza Nutrizio eta Dietetikako Graduko unibertsitate titulua edo baliokidea, edo jarduera arloko goragokoa. Titulazioek MECES 2 maila egiaztatu beharko dute gutxienez.

<https://www.universidades.gob.es/correspondencia-entre-titulos-universitarios-oficiales-pre-bolonia-y-niveles-meces/>

Giza Nutrizio eta Dietetikako Gradua baino goragoko mailako titulazio bat aurkezten bada, eta horrek ematen badu deialdirako sarbidea; titulazio hori baliozkoa izango da hautaketa prozesu honetan parte hartzeko, eta merezimendu gisa zenbatuko da, parte hartzeko eskatzen den gutxienerako prestakuntza baino handiagoa izateagatik.

2.2.- Ez ditu izan behar kasuan kasuko eginkizunak egitearekin bateragarriak ez diren osasun arazoak. Horrela, jatorrizko lanpostuaren eginkizunekin bat ez badatoz, nahitaezkoa izango da osasun azterketa egitea.

2.3.- Lanpostuarekin zerikusia duen esperientzia egiaztatua izatea, gutxienez hiru urtekoa, 2.0 oinarrian eskatutakoa alde batera utzita.

2.4- Ezagutzen fasean egiaztatuko da:

Lanpostuaren berriazko tresnak ezagutzea eta maneiatzea, antolatzeko gaitasuna, komunikazioa, talde lana, barneko eta/edo kanpoko bezeroarenganako orientazioa eta helburuetarako eta emaitzetarako orientazioa.

Nahitaezkozkat ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan.

2.5.- B motako gidabaimena dutela egiaztatu beharko du.

2.6- Ez egotea inongo administrazio publikotako edo Euskal Sektore Publikoko sozietate publikoetako zerbitzutik diziplina espediente bidez bereizita, ezta eginkizun publikoak betetzeko irmoki gaitasun gabetuta ere.

HIRUGARRENA.- ESKAERAK

3.1. -Prozesuan parte hartu nahi dutenek hala jaso beharko dute 0 eranskin gisa atxikitako eskabidean. Hori, honela entregatu beharko da:

a) Posta elektronikoz, hona: Indesaprocesoselectivo@araba.eus, gaian hau adieraziz:

ERREF. INDESA GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA.

b) Indesa 2010 SL sozietatearen egoitza nagusia (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Gasteiz), 08:00etatik 15:00etara.

Ez dira hautaketa prozesuan onartuko eskatutako nahitaezko prestakuntza edo horren baliokidea egiaztatuta ez daukaten izangaia. Eskaerarekin batera jatorrizko dokumentu hauek ere erantsi beharko dira nahitaez.

- Eskaera (0 eranskina)
- Eskabide aurkezten den egunean indarrean dagoen NANen fotokopia.
- Fotocopia del Carnet de Conducir a la fecha de presentación de instancia
- Bigarren oinarrian ezarritako titulua eta baldintzak egiaztatzea.
- Hautagaiek deitutako plazarekin zerikusia duten lanpostuetan izandako esperientziaren egiaztageria. Horrez gain, agiri hauek ere nahitaez aurkeztu beharko dituzte:
 - Curriculum vitae.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua.
 - Lan kontratuak.
- Hala badagokio, % 33 baino gehiagoko desgaitasuna aintzatetsita izatea.

Eskaera mezu elektronikoz bidaliz gero, hautaketa prozesuko lehenengo proba egin aurretik, 5 egun balioduneko epea emango zaie onartutako pertsonari aurretik adierazitako dokumentazioaren jatorrizko aleak aurkez ditzaten. Epe barruan eta zuzen egin ezean, hautagaitza ezetsiko da.

3.2.- Eskaerak Indesa 2010 S.L.ren egoitza nagusian aurkeztuko dira. (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua), goizez, 09:00etatik 12:00etara, 2025eko uztailaren 18etik aurrera, eta 2025eko uztailaren 31an amaituko da, biak barne.

Posta elektronikoz bidaltzen diren hautagaitzak, zuzenketetarako aurkeztutaz jo daitezten, gutxienez, eskaera, eskatutako titulazioa eta lan bizitza jaso beharko dituzte. Dokumentu horiek, gutxienez, sartzen ez badira, ez da ulertuko eskabidea aurkeztu denik.

3.3.- Hautaketa prozesua izapidetzen den bitartean, Hautaketa Organoak 5 egun balioduneko epea irekiko du (behar bezala argitaratuko da) baloratzekoak diren merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko. Ordura arte egindako nahitaezko eta baztertzeko ariketak gainditu dituzten izangaientzat bakarrik izango da. Merezimenduen dokumentuak egiaztatzeko, jatorrizkoak eta haien kopiak aurkeztuko dira; Indesa 2010 SL enpresaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak konpultsatuko ditu kopiak.

Izangai bakarra aurkezten bada, ez da merezimenduak alegatzeko eperik irekiko, eta ez dira baloratuko, efizientzia- eta efikazia-printzipioak aplikatuz.

3.4.-Hautaketa Organoak ezingo du inola ere baloratu merezimendurik, baldin eta ez badira egiaztatu behar bezala alegatu eta aurkezteko ezarritako epe barruan. Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

3.5.- Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta parte hartuz gero, datu pertsonalak tratatzeko, eta hala badagokio, proba psikoteknikoak, nortasun probak edo elkarrizketa egiteko baimena emango da.

3.6- Ariketetarako deiak, behin-behineko eta/edo behin betiko emaitzak, merezimenduak alegatzeko epea eta abar Indesa 2010 SL enpresaren web orrian argitaratuko dira (<https://www.indesa2010.eus>), eta une horretatik aurrera epeak zenbatuko dira, berariaz besterik xedatzen ez bada. Modu EZ loteslean, mezu elektronikoa bana bidaliko zaie eskabidean helbide elektronikoa adierazi duten izangaiei, baina iturri ofizial eta lotesle bakarra Indesa 2010 SL enpresaren web orriko komunikazioa da.

Eskaera aurkeztean eskatzaileak berariaz adieraziko du ados dagoela datu pertsonalak tratatzearekin, hautaketa prozesuaren helburuetarako.

LAUGARRENA.- IZANGAIK ONARTZEA.

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, hautaketa organoak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda edo zerrendak egingo ditu (gutxienez % 33ko desgaitasun maila aintzatetsia duten izangaiak eta % 33tik beherako desgaitasun maila aintzatetsia dutenak), eta hautaketa prozesuko parte hartzaileei eta hautaketa organoari jakinaraziko die. Parte hartzaileei bost egun balioduneko epea emango zaie erreklamazioak egiteko, eta, hala badagokio, ebatzi daitezkeen akatsak edo erroreak zuzentzeko.

4.2.- Aurreko atalean ezarritako alegazioen epe barruan zer izangai aurkeztu diren ikusi ahalko du enpresa batzordeak, eta hala badagokio, haietako zenbait onartzeko edo ez onartzeko alegazioak egin ahalko ditu.

4.3.- Erreklamazioetarako epea igarotakoan, izangaien behin-behineko zerrenda edo zerrendak eta egindako erreklamazioak jakinaraziko dira, Hautaketa Organoak behin betiko onets edo ebatz dezan.

BOSGARRENA. - HAUTAKETA ORGANOA

5.1.- Deialdi honetarako hautaketa organo bat eratuko da. Hautaketa Organoko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio kasuak aplikatuko zaizkie.

5.2.- Hautaketa Organoak ariketak egiteko jasotako ordena aldatzeko eskubidea izango du. Horrela, ariketa bat baino gehiago egun berean egin daitezela ezartzeko eskumena izango du.

5.3.- Hautaketa organoaren kideen izen zerrenda deialdiarekin batera argitaratuko da.

5.4.- Hautaketa organoaren jarduketa baliozkoa izateko, boto eskubidea duten kideen gehiengoa bertaratu beharko da, eta baita lehendakaria eta idazkaria ere. Erabakiak hartzeko, Hautaketa Organotik bertaraten diren kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

5.5.- Hautaketa Organoak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta prozeduraren ordena egokia eta legezketasuna zainduko ditu. Era berean, sortzen diren zalantzak argitzeko baimena izango du. Horrez gain, prozesuan zehar sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko erabakiak hartu ahal izango ditu. Oinarri orokorren edo espezifikoen edukia interpretatu ahalko du.

5.6.- Hautaketa organoko lehendakariak neurri egokiak hartuko ditu hautaketa faseko ariketak, idatziz egiten direnak, izangaien nortasuna jakin gabe zuzenduko direla bermatzeko.

5.7.- Hautaketa prozesua egin ondoren, hautaketa organoak gainditu dituzten lanpostuetarako izangaien zerrenda egingo du, eta, horretarako, diskriminazio positiboko irizpide hauek aplikatuko ditu, lanpostuen lehentasun ordena zehazteko:

- Gutxienez % 33ko desgaitasuna duten izangaien zerrenda
 - a) Berdinketa gertatzen bada, desgaitasun-maila handiena duten izangaiei emango zaie lehentasuna lanposturako, eta, horien artean, emakumeak lehenetsiko dira.
 - b) Berdinketak jarraitzen badu, emakumeak lehenetsiko dira.
- % 33tik beherako desgaitasuna duten edo desgaitasunik ez duten izangaien zerrenda Berdinketa gertatzen bada, emakumeak lehenetsiko dira.

Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak bere horretan jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da, eta zozketa horren data eta tokia argitaratuko dira, tartean diren izangaiak eta enpresa batzordeko ordezkari bat bertaratu ahal izateko.

5.8.- Izangaiak probaldian sartuko dira lanpostura, 6 hilabetez, adjudikazioaren aurreko 6 hilabeteetan lanpostura aldi baterako igo diren langileen kasuan izan ezik. Kasu horietan, bi aldeek probalditik salbuestea erabaki dezakete. Probaldi horretan zehar izangaiak zein enpresak uko egin ahalko dute, eta halakoetan ez dute izango kalte ordaina kobratzeko eskubiderik; lan egindako egunak bakarrik ordainduko dira.

5.9.- Hala ere, Zuzendaritza-Kudeatzaitzaren ustez hautatutako pertsonak ez badu gainditzen ezarritako probaldia, puntuaziorik handiena lortu duen gainditutako bigarren izangaiari esleitu ahalko zaio lanpostua. Ez badago, hirugarrenari, eta horrela hurrenez hurren.

5.10.- Probaldia atal hauek baloratzuz ebaluatu eta kalifikatuko:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokaerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta moldatzeko gaitasuna.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Barneko eta kanpoko harremanak.

SEIGARRENA.- ARIKETAK EGITEA.

6.1- Deialdi bakarra egingo da zerrenda bietako izangaiantzat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira. Ariketa bakoitzera indarreko NAN originala edo gidabaimena eraman beharko dute. Agiri horiek originalak izan behar dute, eta ez da fotokopiarik onartuko.

6.2.- Ariketak non eta noiz egingo diren Indesaren webgunearen bidez jakinaraziko zaie eskatzaileei. Ariketak eta gainerako jarduketak egiteko datak jakinarazi direla ulertuko da Indesa 2010 SL enpresaren web orrian (<https://www.indesa2010.eus>) argitaratzen direnean. Nolanahi ere, eskaeran posta elektronikoa adierazi duten izangaiari mezu elektronikoa bidal dakieke, baina EZ da loteslea izango.

6.3.- Ariketa bakoitzaren emaitzak web orrian (<https://www.indesa2010.eus>) argitaratzen direnean, automatikoki hiru egun balioduneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Epe hori eta alegazioen behin-behineko emaitzak behar bezala argitaratuko dira.

6.4.- Hautaketa organoak Indesa 2010 SL enpresatik kanpoko langileengana joko ahalko du zenbait ariketa baloratzeko eta egiteko.

ZAZPIGARRENA.- KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1- Hautaketa fasea gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak sozietatearen egoitzan (Alaba Jeneralaren kalea, 10, 5., 01005 Vitoria-Gasteiz) eta Indesa 2010 SL enpresaren web orrian argitaratuko dira, eta hautaketa prozesuaren parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

7.2.- Hiru egun balioduneko epea irekiko da merezimendu eta ezagutza fasean lortutako kalifikazioen arabera, eta 5.7. oinarrian adierazitako diskriminazio irizpideak aplikatu eta gero, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendaren aurkako alegazioak aurkezteko. Horrela, behin ebatzita eta banan-banan jakinarazita, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da 5.7.

oinarrian ezarritako moduan.

Halaber, aurkeztutako merezimenduak eta haien balorazioa bistaratu ahalko ditu enpresa batzordeak 7.2. oinarrian adierazitako epean, eta haien balorazioaren aurkako alegazioak aurkeztu.

Hautaketa organoak egindako zerrendako izangaiek ez badute lanposturik lortzen deialdian eskainitakoen artean, arlo bakoitzaren arabera aldi baterako lan poltsa batean sartuko dira, eta zerrenda horretatik deitzean, ordena errespetatuko da.

7.3.- Indesa 2010 SL enpresak lan poltsatik kontratatzeke eskubidea izango du, beharren arabera, deitutako lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko hautaketa prozesu hau amaitzen denetik lanpostu mota bererako deitzen den hurrengo hautaketa prozesua behin betiko ebazten den arte.

ZORTZIGARRENA. - KONTRATATZEKO PROPOSAMENA.

8.1.- Izangaiek behin betiko kalifikatu ondoren, hautaketa organoak Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzailtzari aurkeztuko dio Giza Nutrizioko eta Dietetikako Goi-mailako Teknikaria behin betiko kontratu mugagabez kontratatzeke proposamena, eta deialdi honetan puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari. Bestalde, lan poltsa bat eratuko du 5.7 oinarrian adierazitako diskriminazio irizpideak aplikatuta lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

8.2.- Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzailtzak deitutako plazari dagokion lan kontratua sinatzeko eskumena izango du.

8.3.- Hala ere, kontratua sinatutakoan, ezinbestekoa eta nahitaezkoa izango da Enpresako Zerbitzu Medikuek egindako osasun azterketa eta garatuko den lanposturako gaitasun adierazpena.

Osasun azterketa ez bada aldekoa, plaza lortu ez duen zerrendako hurrengo izangaia proposatuko dio hautaketa organoak Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzailtzari, eta horrela hurrenez hurren.

8.4.- Era berean, ezinbestekoa izango da lanpostuaren lan baldintzak onartzea, ordutegiak, egutegiak eta lantokiak barne.

BEDERATZIGARRENA.- LAN BALDINTZAK.

Lanpostua eskuratzen duen pertsonak, deialdi honetan, eta Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29an onetsitako sozietatearen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian, ezarritako lanpostuaren berezko lanaldia, lan baldintzak eta eginkizunak beteko ditu, betiere Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Gasteiz, 2025eko uztailaren 17a

Ander Eguidazu Aldalur
Zuzendaritza-Kudeatzailtza

OINARRI ESPEZIFIKOAK

SARBIDE SISTEMA - HAUTAKETA PROZESUA-

Hautaketa merezimenduen fasearen eta ezagutzen fasearen bidez egingo da.

A.- MEREZIMENDUEN FASEA.

Merezimendu fasean, gehienez, 66 puntu emango dira, atal hauen arabera:

1. Deitutako lanpostuaren antzeko eginkizunak jasotzen dituzten ziurtagirien bidez eta lan bizitzaren bidez egiaztatutako lanpostuak bete izana:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 46 puntu.

Gutxienez 3 urteko esperientzia giza nutrizioarekin eta dietetikarekin lotutako lanetan.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 46 puntu.

Enplegu arrunteko lanetan, hilabete oso bakoitzeko 0,600 puntu emango dira lortu nahi den lanpostuko eginkizunen antzeko lanpostuetan jardun izanagatik, hiru urteko esperientziatik aurrera (ezinbesteko baldintza da) eta zortzigarren esperientzia urtera arte.

Enplegu zentro berezietako lanetan, hilabete oso bakoitzeko 0,766 puntu emango dira lortu nahi den lanpostuko eginkizunen antzeko lanpostuetan jardun izanagatik, urte beteko esperientziatik aurrera (ezinbesteko baldintza da) eta seigarren esperientzia urtera arte.

Zenbaketa egiteko, hautaketa organoaren irizpidearen arabera alegatutako aldien egunen batuketa egingo da. Urteko kopurua 360 egunekoa izango da.

Izangaiek deitutako lanpostuarekin loturiko lanpostuetan izandako esperientzia egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

a. Indesa 2010etik kanpo egindako lana

Izangaiek deitutako lanpostuarekin loturiko lanpostuetan izandako esperientzia egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

- Curriculum vitae.
- Sinatutako lan kontratuak.
- Lan bizitzaren agiri eguneratua.
- Deitutako lanpostuaren antzeko lana egin duen enpresen ziurtagiria.

b. Indesa 2010en egindako lana. (Ez da beharreako egiaztatzea esperientzia).

Lanpostuan mailaz igoz gero aldi baterako, zenbaketa gehienez 6 hilabetera mugatuko da.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

2. Prestakuntza akademiko gehigarria:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

- Deialdian sartzeko baldintza gisa ezarritakoa baino goragoko prestakuntza: 4 puntu.

3. Lanpostuaren edukiarekin zuzenean lotutako titulazio eta/edo prestakuntza osagarria.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Lanpostuaren edukiarekin zuzenean lotutako prestakuntza osagarriko edo hobekuntzako jarduerak eta ikastaroak (ikus II. ERANSKINA);

- 30 ordu edo gehiago eta 60 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: puntu bat ikastaro bakoitzeko.
- 60 ordu edo gehiago eta 100 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 100 orduko edo hortik gorako ikastaroak: 5 puntu ikastaro bakoitzeko.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua zehaztu beharko da; bestela, ez dira balioetsiko.

4. Informatika ezaqutza

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 3 puntu.

Meritu gisa baloratuko da Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGunea zentro publikoetan eskura jartzen dizkien moduluak lortzeko ariketa gainditzea, honela:

- Microsoft Word 2010 edo geroagoko oinarrikoa: puntu bat
- Microsoft Excel 2010 edo geroagoko oinarrikoa: puntu 1
- Outlook 2010 edo geroagokoa: puntu 1

5. Euskararen ezaqutza:

Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.

- 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 3 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 1,5 puntu.
- 1. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 0,75 puntu.

Izangai bakarra aurkezten bada, ez dira merezimenduak baloratuko.

B.- EZAGUTZA FASEA.

Oposizioaldiak, gehienez, 100 puntu izango ditu, atal hauen arabera:

1. Lehen ariketa.

Nahitaezko eta baztertzeko ariketa izango da izangai guztientzat.

Test moduko eta/edo garatzeko galderen ariketa izango da, eta I. eranskinean jasotzen den gaitegian oinarrituko dira.

Ariketa honetan, gehienez, 30 puntu emango dira, eta gutxienez, 15 puntu lortu behar da gainditzeko.

2. Bigarren ariketa.

Nahitaezko eta baztertzeko ariketa izango da izangai guztientzat.

Ariketa teoriko, praktiko edo teoriko-praktiko bat izango da, eta idatziz erantzun beharko zaio eta/edo oinarri hauen I. eranskinean zehaztutako gai zerrendaren arabera jardueraren garapen arloko ezagutzen arabera egingo diren lanak egin beharko dira.

Test modukoa eta/edo garatzeko galderak, eta I. eranskinean jasotzen den gaitegian oinarrituko dira.

Ariketa honetan, gehienez, 40 puntu emango dira, eta gutxienez, 20 puntu lortu behar da gainditzeko.

3. Hirugarren ariketa.

Nahitaezko eta baztertzeko ariketa izango da izangai guztientzat.

Elkarrizketa pertsonala, proba psikoteknikoa edo nortasun proba izango da, deitutako lanpostuaren profileragokitzen den ala ez baloratzeko.

Ariketa hau gehienez 30 punturekin kalifikatuko da, eta gutxienez 15 puntu beharko dira gainditu ahal izateko. Puntu horietan, hemen deskribatzen diren trebetasunak ebaluatuko dira:

- Ekimena6p
- Antolatzeko gaitasuna6p
- Agintzeko dohainak6p
- Talde lana6p
- Komunikazio trebetasunak6p

0 ERANSKINA - ESKAERA

Ariketetan izena emateko eskaera:

INDESA 2010 SLko ZUZENDARITZA-KUDEATZAILTZARENTZAT

Izena eta abizenak: _____

IFZ _____

HELBIDEA

Telefonoa: _____

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Lehena: Giza nutrizioko eta dietetikako goi-mailako teknikari lanpostua betetzeko kanpoko deialdian izena eman nahi dut.

Agiri hauek erantsiko ditut:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Bigarrena.- Baimena ematen dut nire datu pertsonalak tratatzeko beharrezkoa bada deialdi honen helburua betetzeko.

Gasteiz, 2025eko _____ aren _____ (a).

Izangaiaren sinadura:

I. ERANSKINA - GAITEGIA.

Ezagutza orokorrak

- Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboa, ALHAO, 133. zk., 2024ko azaroaren 22koa.
- Indesa 2010 SL sozietatearen xedea.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena. 1., 3., 6., 7., 12., 35., 36., 37., 38., 43., 44., 45. eta 46. artikulua.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Enplegatua Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. 4., 5., 12., 14., 18., 19., 20., 41., 43., 44., 54. eta 58. artikulua.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (1.-29. artikulua, biak barne).
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina (3. artikulua).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (5.1 art.)

GAI ZEHATZAK.

GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA:

1. Giza nutrizioaren eta dietetikaren hastapenak:
 - a. Nutrizioaren eta dietetikaren definizioa.
 - b. Elikadura orekatuaren garrantzia.
 - c. Mantenugaien eginkizunak giza gorputzean.
2. Giza anatomiaren eta fisiologiaren oinarriak nutrizioarekin lotuta:
 - a. Digestio sistema: egitura eta eginkizunak.
3. Mantenugaien metabolismoa.
 - a. Mantenugaiak xurgatzea.
 - b. Nutrizioarekin lotutako organoen (gibela, pankrea, etab.) eginkizunak.
4. Elikagai taldeak eta horien ezaugarriak:
 - a. Karbohidratoak: eginkizunak, elikadura iturriak, digestioa eta metabolismoa.
 - b. Proteinak: eginkizunak, elikadura iturriak, digestioa eta metabolismoa.
 - c. Lipidoak: eginkizunak, elikadura iturriak, digestioa eta metabolismoa.
 - d. Bitaminak eta mineralak: eginkizunak, elikadura iturriak, gabeziak eta toxikotasuna.
5. Nutrizio egoeraren ebaluazioa:
 - a. Nutrizio egoera ebaluatzeko metodoak (antropometria, dietaren analisia, etab.).
 - b. Nutrizio egoeraren analisien emaitzak interpretatzea.
 - c. Nutrizio arriskuko faktoreak identifikatzea.
6. Nutrizio premiak bizitzako etapa bakoitzean:
 - a. Nutrizioa haurdunaldian eta edoskitzaroan.
 - b. Hurren eta nerabeen nutrizioa.
 - c. Nutrizioa helduaroan eta zahartzaroan.
7. Nutrizio klinikoa:
 - a. Elikadurarekin lotutako gaixotasunak (diabetesa, gizentasuna, gaixotasun kardiobaskularrak, etab.).
 - b. Gaixotasunen nutrizio tratamendua.

- c. Dietoterapia eta dieta terapeutikoen plangintza
8. Elikagaien kalitatea eta segurtasuna:
- a. Elikagaien industriako kalitatea kudeatzeko sistemak (ISO 9001, HACCP, ISO 22000).
 - b. Arriskuen eta kontrol puntu kritikoen analisia (HACCP).
 - c. Elikagaiei buruzko legeria eta etiketatzeari buruzko araudiak.

II. ERANSKINA - LANPOSTUAREN LANTOKIA, BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK.

LANPOSTUA: Giza nutrizioko eta dietetikako goi-mailako teknikaria

LANTOKIA: Indesaren sukalde zentraleko basea, elikagaiak manipulatzeko diren Indesaren zentroetan edo bezeroen lantokietan mugitu ahal izango da.

SOLDATA: Lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- Bulegotika tresnak ezagutzea eta maneiatzea
- Lidergo trebetasunak, taldeak motibatze eta zuzentzeko gaitasunarekin.
- Ahozko zein idatzizko komunikazio trebetasun bikainak.
- Elikagaiak manipulatzeko zereginak zehaztasunez eta kalitatera begira egitea.
- Ingurune dinamikoetan eraginkortasunez eta efizientziaz lan egiteko gaitasuna.

EGINKIZUNAK ETA ARDURAK

Eginkizun orokorrak:

- a. **Goi-mailako teknikariaren kategoriari dagozkionak, Indesaren webgunean argitaratutako lanpostuen balorazio memoriaren arabera (<https://www.indesa2010.eus/wp-content/uploads/2018/01/O.D.1.MEMORIA-VALORACION.pdf>).**

Eginkizun bereziak

- Elikagaien kalitateari eta segurtasunari lotutako laguntza, Indesaren eragiketarako
- Sukaldaritzaren arloan kalitate sistemak egitea eta defendatzea. Kalitate adierazleen jarraipena. Lan prozedura eta protokolo berriak ezartzea.
- Arloko sukaldeetako menuen plangintzak egiten eta berrikusten parte hartzea. Erabiltzaile bakoitzari dieta bereziak ezartzea, ahalik eta dieta egokiena eskaintzeko. Menuak pertsonalizatu eta janari alergietara eta intolerantzetara egokitu.
- Elikagaien kalitate, segurtasun eta higieneko estandarrak mantentzeaz arduratzea. Elikagaien manipulatzeari eta elikadura segurtasunari buruzko prestakuntza ematea. Nutrizio hezkuntzako proiektuetan parte hartzea.

- Giza nutrizioaren, dietetikaren eta elikadura segurtasunaren arloan ezarri beharreko informazioari buruz aholkatzea eta hura eguneratzea. Hautemandako nutrizio eta dietetika arazoak identifikatzea eta horien berri ematea.
- Elikaduran eta nutrizioan oinarritutako dokumentazioa prestatzea, nutrizio txostenak eta abar egiteko.
- AKPKA sistemaren arduraduna. AKPKA plana prestatzea, garatzea eta dinamizatzea. Jardunbide egokien planen kontrola eta jarraipena egitea eta haiek eguneratzea.
- AKPKAren planen kudeaketa eta jarraipen egokia egitea eta zerbitzua ematea.
- Barneko auditorien eta ikuskapenen plan integratua garatzea.
- Alergenoak edo antzekoak kontrolatzeko plana sortu, mantendu, prestatu eta garatzeko arduraduna.
- Ekintza plan zuzentzaileak eta prebentiboak ezartzea, jarraitzea eta balioestea. Desadostasunei buruzko txostenak egitea.
- Kontrol planak garatzea eta optimizatzea, produktuaren adostasuna ziurtatzeko, indarrean dauden eskakizunen arabera: araudia, barne arauak, zehaztapenak eta bezeroen fitxak.
- Laborategiko eragiketak eta analitikak ziurtatzea eta zaintzea, eta produkzioari laguntzea.
- Produktu desadostasunak eta balio bizitza behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea. Atal bakoitzeko galera eta lermen murrizketan parte hartzea.
- Arloko lizitazioekin lotutako agiri teknikoak egiteko aholkularitza.
- Arestian deskribatutako gaii buruz eta beste instantzia batzuekin adosten diren enkargu edo mandatuei buruz aholkatzeko arduraduna.
- Aurrekoen antzeko beste edozein eginkizun, arduradunak agintzen diona eta berariaz aipatu ez dena.

III ERANSKINA - HAUTAKETA ORGANOA.

Lehendakaritza: Indesa 2010 SL enpresaren jarduneko Giza Baliabideetako zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren eragiketen zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren Sukalde Arloko burua edo eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren hautaketa teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaritza: Indesa 2010 SL enpresaren teknikari juridikoa, edo eskuordetzen duen pertsona.

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.